



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

■ ■ ■ Hilariak eta beste hainbat hileta apaingarri.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

■ ■ ■ Hildakoen errautsak gordetzeko hainbat ontzi.

prest izaten dira hainbat profesional, eguneko 24 orduetan.

Gaubella etxean

Hildakoari azken agurra modurik atseginenean eta erosoenean emateko zuzenduta dauden zenbait zerbitzu ari gara aipatzen, baina non hobeto azken agur hori norberaren etxean baino? Aukera hau daukatenak

gutxi dira, ordea, horretarako bereziki moldatutako azpiegitura behar izatea ezinbestekoa baita. Eskakizun horiek betez gero, ordea, badira zerbitzu hau etxera eramateaz arduratzen diren ehorztetxe anitz. Hainbat ekintza liturgiko antolatzeaz arduratzen dira hauek, betiere familia bakoitzaren kredoa kon-tuan hartuz, noski.

Baina hor ez dira bukatzen

inolaz ere ehorztetxeetan aurki daitezkeen zerbitzu guztiak. Nori ez zaizkio burura etortzen, halako kontuez hitz egiten dugunean, lorez osaturiko koroa edota hileta-autoak, eskelak... Askok dira hileta-zerbitzuetan eskaintzen dituzten osagarriak.

Ez dago esan beharrik, zerbitzu guztietan, maila askotako eskaintzak aurki ditzakeela interesatuak. Esaterako, gutxi batzuentzako sarrera duen, kasu batzuetan beilatoki bat, 100 pertsona baino gehiagorentzako harrera-gela bilaka daiteke. Noski, hil-kapera da jende askok alokatzen duen beste zerbitzuetako bat. Eta zer esango genuke autoez? Bada, hileta-autoen inguruan dagoen aukera aniztasuna ere hagitz nabaria da. Hildakoa eramaten duen autoan pentsatuko duzue askok, baina, horrez gain, zenbaitek, laguntzaile bezala, beste bi auto ere kontratatzen dituzte.

Noski, ezin ahaztu hilarria — gorpua ehorztea aukeratzen den kasuetan — edota errausketaren ondoren gorpuaren errautsak gordetzeko erabili ohi den kutxa ere. Bestalde, prentsa, irrati edo bestelako hedabideetan hildakoaren oroimenez eskelak jartzeaz arduratzen da enpresa bat baino gehiago.

Eta ehorzketaren kasuan, noski, hilkutzez mintzatu beharra daukagu. Hemen ere aniztasuna azpimarragarria da, bai material, segurtasun edota tamaina kontuez ari garenean, eta, ondorioz, baita prezioei dagokienez ere. Pentsa: 6.000 eta 60.000 euro bitartera hel daitezke hilkutzak.

Tanatopraxia eta estetika

Hildakoen familia kideen nahietara moldatutako zerbitzuez ari gara etengabe, beraien erosota-

suneta eta intimitate giro pribatua bilatzen duten gaubeilaz ere hitz egin dugu... Baina, noski, hileta zerbitzuez ari garela, hildakoa da protagonista nagusia. Zerbitzu hauek guztiak, beraz, kasu batzuetan zeharka bada ere, berari zuzendutakoak dira azken batean. Badira, ordea, hildakoa-ekin harreman zuzenagoa daukaten zerbitzuak ere. Tanatopraxiaz eta tanatoestetikaz ari gara; zehatzago esanda, zenduaren gorpuaren itxura zaindu, eta, azken agurra jasotzeko orduan, ahalik eta erarik erakar-garrienean aurkezteko helburuarekin lanean aritzen diren estetika profesionalak.

Beraz, ez dira gutxi inguruko pertsona baten galera jasaten dugunean berau agurtzeko ditugun aukerak eta moduak. Apaltasuna edo dotorezia, intimitatea edo lagunartea... Hori bai, hobe aukera egiteko beharrik ez badaukagu.

HARREMANETARAKO ZENBAIT TELEFONO

- Tabisa Bidasoako beilatokia: 943 615457 / 943 612018
- Tolosaldea beilategia: 943 670040
- Zentolen Berri: 943 340467
- Donostialdeko Beilatokia, Ehorzketak: 943 376880 info@tanatoriodonostialdea.com
- Zarautz Hileta Zerbitzuak: 943 894937 zarautz@harrespil.net
- San Migel Ehorzketak: 943 805569
- Donostiako Udal Funeraria: 943 422129
- Tolosako Beilategia: 943 670040
- Bilbaina ehorztetxea: 94 4241065
- Galarza ehorztetxea: 94 4570395
- Beilatokia, errausketa labea: 94 4970695 / 94 4395618



Loradenda
Buenetxea

**Especialistak
Hiletako Koroetan
eta Lore
Konposizioetan**

**Zentolen Kanposantua
Tel.: 943 51 85 27
ORERETA**



**Ezkontzak, Zentroak
eta Oparitzeko Lore
Sortak - Atarien,
Elizen eta Kotxeen
Dekorazioa**

**Donostialdeko beilatokia
Errekalde hirib., 57
Tel.: 943 37 70 20
Faxa: 943 37 68 33
20018 DONOSTIA**

UTZ EZAZU DENA GURE ESKU

Osasun ziurtagiriak, agiri jizialak, garpuak eramateko edo lurperatzeko baimenak, hilkutzak, loreak, tanatoplaxia, panteoiak, hilabi-harriak, errausketak, zerbitzu erlijiosoak, eskelak argitaratzea, ibilgailuak, ... Ez zaitez deusetaz kezka, gu den-denaz arduratuko baikara.



TANATORIO TALDEA
IRACHE
ARDAIZ - AZCONA - ORTIGOSA - UNZUE

TANATORIAK • HILKUTZAK, HILOBI-HARRIAK, ERRAUSKETAK • PARTICULARRAK KUDEATZEA
MARMOLAK • GORPU ERAMATEAK NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK • TANATOPLAXIA

IRUNEA: Irache Monasterioa, 60 • www.tanatoriosirache.com

☎ 948 19 70 70